

ARGIUNEAK

Bizkai'ko lutelestiari begiratuta, sartaldera, zati aundi aundi bat oso erdalduna arkitzen dogu, Nerbion ibai ondorik asita, Burgos'ko mugaraño dijoana, Karrantza barrena.

Bizkaia, bi taldetan dagola zatituta, bat oso euskalduna, bestea berriz era bat erdalduna esango genuke. Euskal zatia Bermeo, Ondarru, Markina inguruan biltzen zaigu; euskal idazle onez josita agertzen da.

Beste aldetik, sartaldeko erdal adar luze ori, euskal kulturarentzat basamortu gorri, illun eta luze bat bezala azaltzen da.

Eredu bat ar dezagun; ikastolak. Ikastoleen Federazioaren mapetan auxe ikusten dugu: Nerbion ibai ezker aldetik, ur bazterrean, ikastoleekin irien errenka luzea: Bilbao, Zornoza, Barakaldo, Trapaga, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Abanto-Zierbana, Muskiz. Adar luze ortan berriz Sodupe ta Balmaseda. Mapa ortan, sartaldeko zati ortan, ori aundiak ikastolik gabe agertzen zaizkigu: Galdames, Sopena, Zalla, Karrantza, Urduña eta abar.

Beste zerbait esango genuke: Bizkai'ko euskal idazleetan, adar onetako gaiak eta abertzaleak gutxitan aipatuak daude. Or, ere, basamortua nabarmentzen da. Bizkai'ko euskal idazleen belarriak lurralde zabal eta eder oietaruntz irikiak ez daudela dirudi.

Gure asmoa garbia da: Biarko egunean, Bizkai'ko edertasunik aundiena ez dala izango GUGEMHEIM delako artezko etxe berri egokia, euskara eder on baizik, errikoa esan nai dugu.

Bizkai'ko dirurik ederrenak, bide ortik joan bear Luke: adar luze ortan euskara sortzen, azitzen eta loratzen. Bide ortik idazleak, batez ere Bizkai'tarrak aurrera jo dezakete.

Nola? Lendabizi lur zabal ori oñez ondo zanpatuz. Gu baño bertago bizi dire, gañera toki oiek, itsas bazterretako idazle askok ez dituzte ezagutzen. Ez dire bein ere izan. Noizbait egin bearo lukete ibillialdi zoragarri ori.

An barrenean sartu bearra dago ta barrendik asita euskal deia dutenak arkitu, egitazko bitxiak bezala erabilli, ango berriak euskaraz eman eta oneruntz zabaldu: gai orretaz asko idatzi, angoko gizasemeak agertu, zenbat arduratzen diren lur aietaz azaldu.

Lendabizi asko erein bearra dago. Ori dena idazleen lana da. Ortarako, urregorriarekin, idazlan batzuek saritu bear lituzkete. Bai, idazlan onak sana merezi luke. Egin an dezakete lan obegorik Bizkaia'n?

Adar luze ortan euskera pixtutzen dela, Bizkaia ederra goa ta aundiagoa osatzen dute.

LATXAGA

IPUIN SARIKETA

Euskerazaleak Alkarteak izendatu dauan Ipuin-Sariketarako maikoak euren batzarra egin dabe 1996'ko otsailaren 1.º egunean, eta Sariketara aurkeztu diran ipuin guztiak aztertu ondoren, auxe izan da artu daben erabagia:

1.º SARIA

"*Gerra zitata*" idazpurua daroan ipuiñari. Idazlea: Goikoetxea 'tar Iñaki.

2n. SARIA

"*Pedrotxo Ternuan*" idazpurua daroan ipuiñari. Idazlea: Arrinda'tar Anes

3n. SARIA

"*Tobias kapeladuna*" idazpurua daroan ipuiñari. Idazlea: Zubikarai'tar Augustin

4n. SARIA

"*Negar egiten ehan*" idazpurua daroan ipuiñari. Idazlea: Legarreta'tar Asier

Zoriona irabazleai, esker ona beste guztiai eta urrengoan be idatzi:

MAIKOAK